

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak 2012an defizit publikoa betearazteko Nafarroak hartutako konpromisoa berretsi du

*Foru Gobernuak eta Estatuak aurrekontuak berrorekatzeko Plan bat adostu dute 2012-2014 aldirako*

Viernes, 18 de mayo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Nafarroak eta Estatuak atzo sinatutako [Aurrekontuak Berrorekatzeko Planaren \(2012-2014\)](#) akordioaren berri eman du gaur goizean, eta gogora ekarri du Foru Komunitateak hartutako konpromisoa kontu publikoen defizit-helburuak betearazteko orduan. Lehendakariarekin batera izan da, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda.



Barcina Lehendakaria aurreko agerraldi batean.

Aurtengo defizit publikoaren helburu hori atzo % 1,5ean finkatu zen autonomia erkidegoentzat Madrilgo Politika Fiskalaren eta Finantzarioaren Kontseiluaren bilkuran; erkidego guztientzat 18.000 milioi euro baino gehiagoko gastu publiko guztiaren doikuntza esan nahi du. Esparru horren barnean, Nafarroari dagokion doikuntza 73 milioi eurokoa da.

Barcina Lehendakariak gogora ekarri du [Nafarroak iazko azken seihilekoan defizitari eusteko egindako ahalegin handia](#); horri esker, 2011 ko ekitaldia % 1,89ko defizitarekin amaitu zuen, hau da, % 39 murriztuz, eta gogora ekarri du ere bere Gobernuak duen betebeharra eta erantzukizuna gastu eta diru-sarreraren bilakaera zaintzeko. Esparru horretan, aurtengo lehen seihilekorako diru-sarrera fiskal txikiagoa hauteman izanak ekarri du: Gobernuak osatzen duten bi alderdiek, UPN eta PSN, aurrekontuen neurri-sorta bat hitzartzea, eta hura [Nafarroako Gobernuak aste honetan onetsitako foru-legearen proiektu batean](#) islatu da.

Lehendakariak gogora ekarri du ere, Standard and Poor's kalifikazio-agentziak Nafarroako zorraz duen balorazio ona; agentzia horrek Nafarroako kontu publikoen fidagarritasuna Espainiakoarena baino bi maila gorago kokatzen du, eta lau maila gorago kaudimen-indizetik; horrek Foru Komunitateari uzten dio kanpo-finantzaketa lortzen interes baxuagoetan, Espainiako zorrarentzat eta beste autonomia erkidegoen zorrarentzat

merkatuan dauden interesen azpitik.

Lehendakariak adierazi duenez, "neurri horiek uste osoz eta beharragatik hartzen ditugu eta hori egitean foru-erregimena defendatzen dugu, baina eztabaida, orain, ez da juridikoa ekonomikoa baizik eta egonkortasuna da behar duguna egoera honetatik atera ahal izateko".

[Nafarroaren Aurrekontuak Berrerekatzeko Planerako Estatuarekin atzo akordioa sinatu zuen](#) lehendakariorde eta Ekonomia nahiz Ogasuneko kontseilari Álvaro Mirandak "historikotzat" jo du Politika Fiskalaren eta Finantzarioaren Kontseiluaren bilkura; izan ere, adierazi duenez, "autonomia erkidegoek konpromiso irmo eta adostua hartu dugu defizitaren inguruan, iaz egin ez zena".